

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza osoko ikaskuntzari
buruzko dokumentuak

Ikastea, motibazioa eta oztopoak: genero ikuspuntua

54. dokumentua

2017ko ekaina

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune
eta Lurralde Orekako Departamentua
Departamento de Promoción Económica,
Medio Rural y Equilibrio Territorial

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	3
1.1.	Sarrera.....	3
2.	Emakumea eta bizi osoko ikaskuntza	4
2.1.	Ikasten duten emakumeak	4
2.2.	Emakumeak eta egindako ikaskuntza	6
2.3.	Partaidetza jarraitua ikaskuntzan	9
3.	Ikasteko arrazoiak eta oztopoak	11
3.1.	Bizi osoan zehar ikasteko arrazoiak	11
3.2.	Bizi osoan zehar ikasteko oztopoak	14
4.	Ikasketa maila, gaikuntza eta ikasteko asmoa	16
4.1.	Erdietsitako ikasketa maila eta gaikuntza profesionala	16
4.2.	Ikasteko asmoa.....	17

1. Sarrera

1.1. Sarrera

Gipuzkoaren helburua ikasten duen lurralde bihurtzea da, hori izan dadin jakintzaren gizartearen ardatz, eta horretarako, bizi osoan zehar ikasteko eredu espezifiko bat garatzetik hasi nahi dugu. Bizi osoan, luze eta zabal, ikasteko prozesuan bidea arrakastaz egiteko motibazioan eta konfiantzan oinarritutako jarrera positiboa duten pertsonen lurraldea izan nahi dugu.

Testuinguru horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentuak pertsonen ikaskuntza oinarritzat hartzen du; hain zuzen ere, Gipuzkoako gizartearen aurrerapena, garapen ekonomikoa, gizarte-ongizatea eta gauzatze pertsonala oinarritzen diren arlotzat, eta beraz, gizarteari begira arduratsuagoa den lurraldea izatea ahalbidetzen duena.

Bizi osoko ikaskuntza horretan sartzen dira pertsonak alor batean edo bestean eguneroko bizitzan egiten dituzten jarduerak, alor pertsonalean eta hiritar, gizarteko kide edo profesional diren aldetik egiten dituztenak, eta jarduera horiek pertsonen jakintzak, gaitasunak eta prestakuntza hobetzen laguntzen dute.

Dokumentu honetan daude jasota Gipuzkoako pertsona helduen jarduerak, ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeari lotuta eta genero-ikuspegitik begiratuta, batez ere, emakumeen partaidetzari begiratuta. Hiru informazio-bloke osatu ditugu:

- Emakumeen parte-hartzea ikaskuntza-jardueretan
- Emakumeek zer ekarpen egiten duten ikasten duten taldeetan.
- Ikasten jarraitzeko asmoan eta ikasteko topatzen dituzten oztopoetan dauden aldeak.

2. Emakumea eta bizi osoko ikaskuntza

2.1. Ikasten duten emakumeak


Gipuzkoan, 25 eta 74 urte arteko hamar emakumetik lauk ikasi egiten dute

2017an, Gipuzkoako 25 eta 74 urte arteko hamar emakumetik lauk (% 38,7) ikaskuntzako jardueretan parte hartu dute azken urtean zehar. Ehuneko hori puntu bat baino zertxobait gehiago igo da 2016ko datuekin alderatuta (% 37,4). Gizonezkoen ikaskuntzako jardueretako parte-hartze tasa emakumeena baino lau puntu altuagoa da eta 2016ko datuekiko mantendu egin da (% 42,8).

Parte-hartze tasan gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea, besteak beste, azal liteke pertsonen lan egiten duten jarduera-sektorearengatik, eta prestakuntzako duen eragin maila desberdinengatik, esaterako, enpresa industrialetan (dimentsio handiagoa, gizonezkoen enplegua ugariagoa) edota zerbitzuen enpresetan eta/edo heldutako sektoreetan lan egitearen arabera (txikizkako merkataritza, emakumezkoen presentzia handiagoarekin, esaterako).

1. grafikoa Ikasten duten helduak, sexuaren arabera

25 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (%)




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Emakumeek ikasteari uzten diote adinean aurrera egin ahala, eta Gipuzkoako gizarteak osotasunean partekatzen du jokabide hori

25 eta 34 urte arteko emakumeen ia % 60k esan du parte hartu duela azken urtean ikaskuntza-jardueretan eta, gainera, 35 eta 44 urte arteko emakumeen % 49,0k ere jarduera horretan parte hartu duela adierazi du.

Erantsitako grafikoak jasotzen duen moduan, parte-hartze ratioa % 28,6ra arte jaisten da 55 eta 64 urte arteko emakumeen artean, eta % 13,6ra, berriz, 65 eta 74 urte arteko emakumeen artean. Hala, emakume gazteenen parte-hartzea lau aldiz handiagoa da helduenena baino, eta ehuneko 41,8 puntuko aldea du.

2. grafikoa Ikasten duten emakumeak, adinaren arabera. 2017



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.


2.2. Emakumeak eta egindako ikaskuntza

Hamar emakumetik batek ikaskuntza-jarduera formala egiten du, eta hirutik batek ikaskuntza-jarduera ez-formala

Ikaskuntza-jarduerak bi motatakoak izan daitezke: Ikaskuntza formala, hezkuntza-sistemaren barruan egindakoa eta titulazio ofiziala lortzeko helburuz egindakoa, eta ikaskuntza ez-formala, eduki eta programa mugatuetan oinarritutakoa, baina ikastetxe batean egin daiteke edo ez, eta ez dago bideratuta titulazio ofizial bat lortzera¹.

Gipuzkoan emakume helduen ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzea 2017an % 8,2koa da, ehuneko 1,1 puntutan gaindituta 2016koa (% 7,1). Bestalde, hiru emakumetik batek ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzen du; proportzio hori ia ez da aldatu azken bi urteetan (% 34,0 eta % 33,5, 2016an eta 2017an, hurrenez hurren).

3. grafikoa Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan, motaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.


¹ Ikaskuntza informala (adierazitako ezaugarriei lotu gabekoa) esaten zaion horrekin osatzen da eta ez dator bat bizi osoko ikaskuntzaren definizioarekin.

25 eta 34 urte arteko lau emakumetik batek titulua lortzeko ikasten du

25 eta 34 urte arteko emakumezkoen populazioaren laurdenak dio parte hartu duela ikaskuntza formaleko jardueretan azken urtean (% 25,6, 2016ko eta 2017ko batez bestekoa). Ehuneko horrek hirukoiztu egiten du emakumezko populazio helduaren datua (% 7,7).

Hain zuzen ere, ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartutakoen profila nabarmen jaitsi egiten da adinarekin eta ia marjinala da 55 urtetik aurrera.

4. grafikoa Emakumeen partaidetza ikaskuntza formalean, adinaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

25-34 urteko hamar emakumetatik lauk ikaskuntza ez-formalean parte hartu dute

Ikaskuntza ez formaleko jardueretan parte hartutakoen profila antzekoa da: 25 eta 34 urte arteko (% 43,8) eta 35 eta 44 urte arteko (% 47,2) emakumeen erdiak baino zertxobait gutxiagok ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu dute azken urtean. Proporzio hori 45 eta 64 urte arteko taldean hirutik batek baino gehixeagokoa da (% 38,6) eta nabarmen jaisten da beste bi adin taldeetan.

5. grafikoa Emakumeen partaidetza ikaskuntza ez-formalean, adinaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

2.3. Partaidetza jarraitua ikaskuntzan


Zazpi emakumetatik batek ikaskuntza-jardueraren bat egin du azken hilean

Inkesta egin aurreko lau asteetan ikaskuntza iraunkorrean partaidetza jarraitua izatea ikaskuntza-jarduerak egitean datza.

Lortutako emaitzak (2016 eta 2017ko batez besteko gisa kalkulatuta) erakusten du Gipuzkoako emakumezko helduen populazioaren % 17,3k modu jarraituan parte hartu duela ikaskuntza iraunkorreko jardueretan. Emaitza horrek ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko modalitateak biltzen ditu.

Zehazki, egindako ikaskuntza motaren arabera, ikus daiteke 25 eta 74 urte arteko emakumeen % 13,5ek ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duela azken hilean. Ehuneko hori ikaskuntza formaleko jarduerak egin dituzten emakumeena (% 4,8) baino ia hiru aldiz handiagoa da.

6. grafikoa Emakume helduen partaidetza jarraitua ikaskuntzan (azken lau asteak). 2016-2017 batez bestekoa




Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Espero izatekoa den moduan, etengabeko ikaskuntza ugariagoa da emakume gazteenen artean.

25 eta 34 urte arteko emakumeen kolektiboaren % 37,5ek etengabe ikasi du (azken lau asteak). Zifra horrek emakume helduen populazio osoaren batez bestekoa ehuneko 20 puntutan gainditzen du (% 17,3).

Etengabeko ikaskuntza-jardueretan parte hartzea nabarmen jaisten da 35 urtetik aurrera. Hala, 35 eta 44 urte arteko adinak dituzten bost emakumetik batek esan du azken lau asteetan ikaskuntza-jardueretan parte hartu duela (% 19,0) eta 65 eta 74 urte arteko emakumeen artean ehuneko hori % 6,0ra jaisten da.

7. grafikoa Emakumeen partaidetza etengabeko ikaskuntzan, adinaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

3. Ikasteko arrazoiak eta oztopoak

3.1. Bizi osoan zehar ikasteko arrazoiak

Motibazio profesionala gainditzen zaio motibazio pertsonari ikasteko garaian

Bai ikaskuntza formaleko jardueretan, bai ikaskuntza ez-formalekoetan, lurraldeko emakume helduen artean ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko motibazio nagusia motibazio profesionala da.

Erantsitako taulan ikus daitekeen moduan, azken urtean ikaskuntza formaleko jardueraren batean parte hartu duten emakumeen % 57,6k eta ikaskuntza ez-formaleko jardueraren bat egin dutenen % 70,9k diote hori egin izanaren arrazoiak, batez ere, profesionala dela. Hori guztia kontuan hartuta, ikaskuntza formala egin duten emakumeen artean motibazio profesionalak 14,8 puntu egin du atzera 2016ko datuekiko, eta ikaskuntza ez-formala egin dutenen artean, atzerakada 5,4 puntukoa izan da.

1. taula Emakume helduen ikasteko arrazoiak. Ikaskuntza formala eta ez-formala

azken urtean zehar ikaskuntza egin duten 25 eta 74 urte bitarteko emakumeen ehunekoa (%)o

	2016	2017
Aprendizaje formal		
Motivos profesionales	72,4	57,6
Motivos personales	27,6	42,4
Aprendizaje no formal		
Motivos profesionales	76,3	70,9
Motivos personales	23,7	29,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.

Ikaskuntza formaleko jardueri ekiteko arrazoi nagusien artean daude gai jakinen ezagutzak handitzea eta ziurtagiria lortzea


Emakumeek ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko dituzten arrazoiak zehatzago aztertuta, ikus daiteke bi direla arrazoi nagusiak, % 85 baino gehiagoko aipametasarekin: gai jakin batzuetan ezagutzak eta teknikak eskuratu nahia (% 89,4) eta ziurtagiri ofiziala lortzea (% 85,8).

Era berean, eguneroko bizitzarako ezagutza eta teknika erabilgarriak eskuratzeko (% 79,9) eta enpresa barruan itxaropen profesionalak hobetzea (% 77,6) ikasteko arrazoi garrantzitsuak dira.

Beste arrazoi batzuei aipamena egiten dietenen proportzioa nabarmen murrizten da, eta horien artean aipagarriak dira enplegua lortzeko motibazioa (% 48,4) eta lanbidez/lanetz aldatzeko nahia (% 35,2) edo enpresaz aldatzekoa (% 24,2).

8. grafikoa Ikaskuntza formalerako arrazoiak. 2016-2017 batez bestekoa

azken urtean zehar ikaskuntza formala egin duten 25 eta 74 urte bitarteko emakumeen ehunekoa (%)



Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.



Intereseko gaietan ezagutzak eskuratzea nagusitzen da ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartzeko arrazoen artean


Ikaskuntza ez-formaleko jardueretan parte hartu duten emakumeen kasuan, hamarretik bederatzik diote interesekoak dituzten gaietan ezagutzak eskuratzeko ikasten dutela (% 90,8).

Tarte batera, baina garrantzi erlatibo nahiko altuarekin, enpresa barruan edo beste batean itxaropen profesionalak hobetu nahia ere nabarmentzen da (% 78,0) eta eguneroko bizitzarako ezagutza eta teknika erabilgarriak eskuratu nahia (% 70,7).

Kontuan hartutako gainerako arrazoen artean, goitik beherako ordenan, honako hauek aipatzen dira: dagokion ziurtagiria eskuratzeko (% 43,1), enplegua lortu ahal izateko ezagutzak hobetzea (% 24,2) edo jendea ezagutzea (% 24,0), batzuk aipatzearen.

9. grafikoa Ikaskuntza ez-formalerako arrazoiak. 2016-2017 batez bestekoa

azken urtean zehar ikaskuntza ez formala egin duten 25 eta 74 urte bitarteko emakumeen ehunekoa (%)



Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreko Departamentua.


3.2. Bizi osoan zehar ikasteko oztopoak

Familiako konpromisoak dira ikasteko oztopo nagusia

Ikaskuntzako jarduerak ez egiteko seinalatutako oztopoak aztertu aurretik, garrantzitsua da kontuan hartzea lurraldeko emakume helduen % 61,3k ez dutela parte hartu azken urtean ikaskuntza-jardueretan. Ehuneko hori gizonena baino altuxeagoa da (% 57,2).

10. grafikoa Ikaskuntza-jarduerarik egiten ez dutenak, emakumeak eta gizonak

25 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua.


Arreta kolektibo horretan oinarrituta, emakumeen erdiak baino gehiagok diote familiako erantzukizunak eragozten dietela ikaskuntza formaleko eta ez-formaleko jarduerak egitea. Oztopo hori gizonen % 21,6k soilik adierazten dute. Hala, agerian geratzen dira gure gizartean familiako erantzukidetasunaren arloan dauden alde nabariak. Hain zuzen ere, motibazio-falta da gizonen % 35,4 aipatu dute, eta ia ez dago alderik emakumeekiko (% 32,4).

Eta hirugarrenik, jarduerak lan-ordutegiarekin bateraezinak izatea aipatu dute gizonen % 28,3k eta emakumeen % 25,9k.

Azkenik, emakumeek gainerako oztopoak neurri txikiagoan aipatzen dituzte eta haietako bi gizonek gehiago aipatzen dituzte, esaterako, adinik ez izatea (% 17 gizonek, % 13,2 emakumeek) eta ikasi beharrik ez izatea (% 17,4 gizonek, % 12,3 emakumeek).

11. grafikoa Ez ikasteko arrazoiak, sexuaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa

Ikasten ez duten 25 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (%)



Erantzun anitza

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

4. Ikasketa maila, gaikuntza eta ikasteko asmoa

4.1. Erdietsitako ikasketa maila eta gaikuntza profesionala

Gipuzkoako hiru emakume heldutik batek hirugarren mailako ikasketak ditu

Gipuzkoako emakume helduen % 27,6k lehen mailako ikasketak ditu (gizonek baino ehuneko 3,85 puntu gehiago), % 39,2k bigarren mailako ikasketak ditu (gizonek baino ehuneko 4,35 puntu gutxiago), eta % 33,3k, berriz, hirugarren mailako ikasketak ditu (gizonek baino ehuneko 0,4 puntu gehiago).

2. taula Erdietsitako ikasketa maila eta arlo profesionalerako gaitzearen balorazioa, sexuaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa

25 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoak (%)

	Mujeres	Hombres
Nivel de estudios alcanzado		
Primario	27,6	23,7
Secundario	39,2	43,5
Terciario	33,3	32,9
Su titulación académica refleja adecuadamente su capacitación profesional		
Sí	70,3	75,0
No	21,8	20,8
Ns/Nc	7,9	4,2

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.

Lurraldeko emakume helduen % 70,3k uste du bere egoera akademikoak behar bezala islatzen duela gaikuntza profesionala. Ehuneko hori % 75,0koa da gizonen kasuan. Beste modu batera ikusita, bost emakumetik batek dio ez duela bere gaikuntzak behar bezala islatzen dituen titulazio akademikorik eta hamarretik batek baino gutxiagok ez daki edo ez dio erantzun galderari (% 7,9).

4.2. Ikasteko asmoa

Emakumeen % 38k datorren urtean ikasteko asmoa du

Ikasten jarraitzeko asmoari dagokionez, eta erreferentzia gisa 2016 eta 2017 urteak hartuta (batez bestekoa), 25 eta 74 urte arteko emakumeen % 38,2k dio datorren urtean zehar ikaskuntza-jardueraren bat egiteko asmoa duela. Tasa hori baxuxeagoa da gizonezkoen kolektiboari dagokiona baino (% 42,1).

Zehazkiago, datorren urtean ikaskuntza-jardueraren bat egingo dutela dioten emakumeen % 81,7k ikaskuntza ez-formaleko jardueraren baten bidez egingo du; aldiz, % 18,3k dio ikaskuntza formaleko jardueraren bat egingo duela. Gizonen artean, ehuneko horiek % 87,1ekoa eta % 12,9koa dira, hurrenez hurren.

3. taula Datorren urtean ikasteko asmoa eta ikaskuntza mota, sexuaren arabera. 2016-2017 batez bestekoa

25 eta 74 urte bitarteko pertsonen ehunekoa (%)

	Mujeres	Hombres
Intención de aprender	38,2	42,1
Tipo de aprendizaje (%)		
Aprendizaje Formal	18,3	12,9
Aprendizaje No formal	81,7	87,1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.



Titulua:	Ikastea, motibazioa eta oztopak: genero ikuspuntua 54. dokumentua, 2017ko ekaina
Koordinazioa eta gainbegiratzea:	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Departamentua.Gipuzkoako Foru Aldundia
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.
Ohar teknikoa	Laginaren diseinuaren eguneratzea; aldagai demografikoen, enpleguaren eta ikasketa mailaren doiketa. Lotura urtea 2016 eta aurreko urteetakoekin zuzenean alderagarriak ez diren emaitzak.

